# 2022ko urtarrila-iraileko
## emaitzak

2022ko azaroak 10



# Lege-oharra

Dokumentu honek informazio-helburua du soilik.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioari edo bertan adierazitako iritzien edo aitorpenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharrik hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun esklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldez aurretik idatzizko baimena eman gabe.

# Aurkibidea


Laburpen exekutiboa

Finantza-informazioa

Eranskinak

# Laburpen exekutiboa

## Une komertzial bikaina. Emaitza ekonomikoetan oraindik testuinguru konplexuaren eragina sumatzen da.

| Kontratazioa | Eskarien zorroa | Salmentak | EBITDA | Emaitza garbia interes minoritarioen ondoren | ESG |
|---|---|---|---|---|---|
| 3.837 M€ | 11.857 M€ | 2.191 M€ | 157 M€<br>Salmentekiko % 7,2 | 34 M€ | ✓ Karbono-aztarna egiaztatzea (1, 2 eta 3 irismenak) eta Berotegi Efektuko Gasen isurpenak gutxitzeko helburuak definitzea[2] |
| +% 29 | +% 23 | +% 8 | -% 10<br>Ehuneko -1,4 puntu | -% 41 | ✓ 2021. urteari dagokion CDP txostena[3] |
| *vs 2021eko 9H* | *vs 2021eko ab.* | *vs 2021eko 9H* | *vs 2021eko 9H* | *vs 2021eko 9H* | |

**Emaitza komertzial bikaina. BtB=1,8[1]**
**Eskaera-zorroan errekor berria izan da**

**Jardueraren igoera bi digitu ingurukoa izan da**
**Emaitza operatiboek eta finantzarioek makro koiunturaren eragina jasan dute**

**ESG Equity Story konpromisoak bete dira**

[1] Book-to-bill. [2] 2019, 2020 eta 2021 urteetarako karbono-aztarna (1, 2 eta 3 irismenak) egiaztatu du akreditatutako LRQA kanpoko erakundeak, eta SBTi metodologiaren arabera Berotegi Efektuko Gasen isurpenak gutxitzeko helburuak definitu dira. [3] Carbon Disclosure Project.

# Laburpen exekutiboa

## Frantzian eta Alemanian aktibo garrantzitsuak gehitu dira CAF Taldera

Erositako perimetroa







Coradia Polyvalent plataforma + Eskari-zorroa (570 M€) + Reichshoffeneko lantegia + Enplegatuak (702 pertsona)[1]

Talent 3 Plataformaren jabetza intelektuala + Talent 3ko funtsezko langileak (12 pertsona)[1]

Erosketa 2022ko abuztuaren 1ean itxi da.
2022ko 3HHan perimetro berria kontsolidatu da.

**Mundu mailako bi tren-merkatu nagusienetakoetan gaitasunak eta posizionamendua indartu dira**

[1] Frantziako perimetrora gehitutako langileen profilak jarduera hauekin lotuta daude: aurreproiektuak, plangintza, eragiketak, fabrikazioa, ingeniaritza, erosketak, kalitatea, gerentzia eta euskarria. Aldiz, Alemaniako perimetroko langileak ingeniaritzako lanez bakarrik arduratzen dira.

# Aurkibidea

Laburpen exekutiboa

Finantza-informazioa

- Kontratazioa
- Eskarien zorroa
- Emaitza-kontu bateratua

Eranskinak

# Finantza-informazioa | Kontratazioa

## Kontratazio handia, batez ere trenen segmentuan, mugikortasunean egindako inbertsio handia dela eta

Honako hauek izan dira **2022ko 3. HHan** eskarien zorrora gehitutako **kontratu garrantzitsuenak**:

**Tren arloa** — % 100 Zero isurpenak

- Montpellierrerako (Frantzia) tranbien hornidura
- Suediako SJ AB (Suedia) operadorearentzako eskualdeko trenen hornidura
- Sevillarako (Espainia) tranbien hornidura
- Marseillarako (Frantzia) tranbien hornidura
- Hannoverrerako (Alemania) LRVen hornidura
- Canberrarako (Australia) tranbien hornidura eta mantentze-lana eta aurrez entregatutako flotetako birgaitze-lana katenariarik gabe zirkula dezaten

**Autobusak** — % 86 *e-mobility*[1]

- Hidrogeno bidezko autobusak hiri hauetarako: Köln (Alemania), Bratislava (Eslovakia), Venezia (Italia), Écully (Frantzia) eta Lublin (Polonia).
- Autobus elektrikoak toki hauetarako: Madril, Leon eta Fuenlabrada (Espainia), Cracovia, Rzeszów eta Wejherowo (Polonia), Savona (Italia), Friburgo (Alemania), Valmiera (Letonia) eta Zug (Suitza)
- Trolebusak Italiako hainbat hiritarako.
- Autobus hibridoak Bartzelona eta Lemoarako (Espainia) eta Poloniako hainbat hiritarako, Hunedoararako (Errumania) eta Hanaurako (Alemania)
- Gas natural konprimatuko autobusak Trentorako (Italia)
- Autobus konbentzionalak Poloniako hainbat hiritarako, Pilsenerako (Txekiar Errepublika), Crans-Montanarako (Suitza) eta Mindenerako (Alemania)

**2022ko irailaren 30ean metatutako kontratazioa**:

*(milioi eurotan)*

| | 2019 | 2020 | | | 2021 | | | 2022[2] | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1HH-4HH, GUZTIRA | 1HH-4HH, GUZTIRA | Tren arloa | Autobusak | 1HH-4HH, GUZTIRA | Tren arloa | Autobusak | 1HH-3HH, GUZTIRA | Tren arloa | Autobusak |
| Kontratazioa | 4.066 | 2.123 | 1.410 | 713 | 3.776 | 2.982 | 794 | 3.837 | 3.154 | 683 |
| *book-to-bill* | *1.6* | *0,8* | *0,7* | *1,0* | *1,3* | *1,3* | *1,1* | *1,8* | *1,9* | *1,4* |

**Btb > 1 jarduera guztietan**

[1] *E-mobility* gamaren 2022ko 3HHko kontratazioen barruan (312 autobus) zero isurpeneko 149 autobus (hidrogenoa, elektrikoa eta trolebusa) eta isurpen baxuko 163 autobus (hibridoak) izan dira. Guztira, 361 autobus kontratatu dira.
[2] Ez dago sartuta erositako perimetroari lotutako zorroa. Kontratazioaren xehetasuna ***Eranskinean.***

# Finantza-informazioa | Eskarien zorroa

## Eskarien zorroa beste maximo historiko batera iritsi da

**Guztira (M€)**




2022Ko 3HHko zorroak Frantzian erositako perimetro berritik eratorritako 547 M€-ko zenbatekoa jasotzen du abian dauden proiektuekin lotuta: SNCF, Hello Paris, RATP eta Apix.

Kontratazioak eta zorrak **ez dituzte biltzen** 2022ko 3HHaren amaieran oraindik sinatu gabe zeuden edo 2022ko urrian iragarritako esleipen hauek:

- Bostonerako LRVen hornidura (> 800M€).
- Renferentzako tren elektrikoen hornidura eta mantentze-lan integraleko zerbitzuak 15 urtez (300 M € inguru).
- Atenaseko metro-unitateen birgaitzea (65 M € inguru).

**1.200M€ inguru zorroan ageri ez diren esleitutako proiektuetan**

[1] Erositako perimetroari lotutako zorroa kanpo.

[2] Ratioa 2022/09/30ean, 2021ean izandako salmenten gainean.

# Finantza-informazioa
# | Emaitza-kontu bateratua

## Salmentak igo dira emaitza operatibo eta finantzarioetan makro koiunturaren eragina nabaria den testuinguruan

| (milioi eurotan) | 2021eko 9H | 2022ko 9H | Ald. 2022 9H/2021 9H |
|---|---|---|---|
| **Negozio-zifraren zenbateko garbia** | **2.033** | **2.190** | **+% 8** |
| **EBITDA** | **175** | **157** | **-% 10** |
| **EBITDA Marjinaren %** | **% 8,6** | **% 7,2** | **-** |
| Ibilgetuaren amortizazioa eta hornidurak | (65) | (60) | -% 8 |
| Ustiapenaren emaitza | 110 | 97 | -% 12 |
| Finantza arloko emaitza | (24) | (42) | +% 76 |
| Finantza-sarrerak | 6 | 6 | +% 6 |
| Finantza-gastuak | (29) | (46) | +% 56 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | 0 | 3 | - |
| Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk | 0 | (6) | - |
| Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza | (1) | 5 | - |
| **Zergen aurreko emaitza** | **85** | **60** | **-% 29** |
| Irabazien gaineko zerga | (26) | (25) | -% 5 |
| Zergen ondoren, emaitza garbia | 59 | 36 | -% 39 |
| Interes minoritarioak | 1,4 | 1,9 | +% 33 |
| **Erakunde kontrolatzaileari egotzitako emaitza** | **57** | **34** | **-% 41** |

CAF GROUP

## Eskarien zorro handiak bi digitu ingurukoa den urtetik urterako hazkundea babesten jarraitzen du Solarisen hornidura-katearekin lotutako arazoen inpaktua izan den arren.

# Salmentak (M€)

### Guztira[1]




### Tren arloa[1]




| | 2021eko 9H | 2022ko 9H |
|---|---|---|
| salmenten guztizkoarekin alderatuta | % 77 | % 77 |

- Azken urteotan tren arloko kontratazio handiaren ondorioz, **jarduera igo egin da**.
- Aipatu beharrekoa da **proiektu integralen** ekarpena.

### Autobusak




| | 2021eko 9H | 2022ko 9H |
|---|---|---|
| salmenten guztizkoarekin alderatuta | % 23 | % 23 |

- **Entregatutako unitate kopurua % 16 igo da** urtetik urterako tasan, osagaien hornidura-arazoen eragina jasan duen jarduera-testuinguruan.
- **Salmentek % 5 egin dute gora eta honako hauen eragina izan dute:**
  - Mixa ez da horren ona izan aldian (entregatutako autobusen % 24 bakarrik izan dira bateria eta hidrogeno bidezkoak; eta, aldiz, 2021eko 9Han % 32 izan ziren), osagaien hornidura-arazoen eragina dela eta, batez ere, teknologikoki konplexuagoak diren autobusetan.
  - Solarisen greba soldata-negoziazioa dela eta.

[1] 2022ko 9HHko salmentek erositako perimetroarekin lotutako 22 M€ biltzen dute. Gehikuntza hori albo batera utzita, salmentak, guztira eta trenen segmentuarenak 2.169 M€ (+% 7 urtetik urtera) eta 1.675 M€-koak (+% 7 urtetik urtera) dira hurrenez hurren.

# Finantza-informazioa
# | Emaitza-kontu bateratua

**Interes-tasen igoera gehitu zaio testuinguruarengatik aurretik ere emaitzetan eragina zuten aldagaiei**

## EBITDA (M€) eta EBITDA marjina (%)




## Emaitza garbia interes minoritarioengatik (M€)




2022ko urtarrila-iraila aldian emaitza garbiaren joera zehaztu duten elementu nagusiak izan dira hauek:

+ Jardueraren igoera
+ Truke-tasen bilakaera dela eta, eragin positiboa salmentetan eta EBITDAn
– Inflazioaren inpaktua:
  – Faktura energetikoaren hazkundea (+ % 300 gutxi gorabehera vs 2021eko 9H)
  – Soldataren kostuen eta materialen hazkundea
– Krisia osagaien hornikuntzan. Horrek oraindik ere eragin materiala du Solarisen zorroaren exekuzioan
– Covid-19aren eragina trenen zirkulazioetan lehen seihilekoan
– Finantza-gastuaren igoera interes-tasen eta Taldearen zorra izendatzeko erabilitako dibisa batzuen (batez ere, BRL eta USD) balioaren igoera direla eta

# Aurkibidea

Laburpen exekutiboa

Finantza-informazioa

Eranskinak

a. Kontratazioaren xehetasuna

b. Errendimenduko neurri alternatiboak (MAR, gaztelaniaz)

# a | Kontratazioaren xehetasunak

**2022ko urtarrila-iraila aldian iragarri eta eskaeren zorroan sartu diren kontratuak**

| Data | Proiektua | Herrialdea | Deskribapena | Bezeroa | Mota | Aukera gehiago | Negozioa: Ibilgailuak | | | Negozioa: Gainerako negozioak | | | | Zenbatekoa (M €) |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | # unit. | Plataforma | | Negozioa | Irismena | Ezaugarriak | |
| 1HH | Auckland | Zeelanda Berria | EMUen hornidura | Berria ez | Luzapena | Bai | ✔ | 23 | - | ✔ | Zerbitzuak | Eskualde-unitateen mantentze-lanak | 2025 arte | >130 |
| 1HH | Mallorca | Espainia | EMUen hornidura | Berria ez | Oinarri-kontratua | Ez | ✔ | 5 | - | ✔ | Zerbitzuak | Eskualde-unitateen mantentze-lanak | 2 urte | >50 |
| 1HH | SAR | Saudi Arabia | Flotaren mantentze-lanak, laguntza teknikoa eta beste zerbitzu batzuk | Berria ez | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Zerbitzuak | Trenetako mantentze-lanak | 5 urte | ~200 |
| 1HH | Oslo | Norvegia | Autobusetarako hornidura | Berria ez | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Autobus elektrikoen hornidura | 183 | >130 |
| 1HH | Dortmund | Alemania | Autobusetarako hornidura | Berria ez | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Autobus elektrikoen hornidura | 30 | ~60 |
| 3HH | Bartzelona | Espainia | Autobusetarako hornidura | Berria ez | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Autobus hibridoen hornidura | 87 | |
| 2HH | Tel Aviv | Israel | Proiektu osoa tranbien hornidurarekin | Berria | Oinarri-kontratua | Ez | ✔ | 98 | Urbos | ✔ | Zerbitzuak, Seinaleztapena eta Sistemak | Mantentze-lan guztiak, barneko eta errailetako seinaleztapena eta sistemak | 25 urte | >525 |
| 2HH | Villach | Austria | Autobusetarako hornidura | Berria | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Hidrogenozko autobusen hornidura | 5 | ~50 |
| 2HH | AT Milano | Italia | Trolebusen hornidura | Berria ez | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Trolebusen hornidura | 50 | |
| 2HH | Mallorca | Espainia | Autobusetarako hornidura | Berria ez | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Hidrogenozko autobusen hornidura | 5 | ~4 |
| 2HH | Bonn | Alemania | LRVen hornidura | Berria | Oinarri-kontratua | Bai | ✔ | 22 | | | | | | >110 |
| 2HH | Madril | Espainia | Autobusetarako hornidura | Berria ez | Oinarri-kontratua | Ez | | | | ✔ | Autobusa | Autobus elektrikoen hornidura | 60 | |
| 2HH | Etihad | AEB | Push-pull trenen hornidura | Berria | Oinarri-kontratua | Ez | ✔ | - | | | | | | >250 |
| 2HH | NWL | Alemania | Bateria bidezko trenen hornidura | Berria ez | Luzapena | Ez | ✔ | 10 | | ✔ | Zerbitzuak | Bateria bidezko trenen mantentze-lana | 33 urte | ~170 |
| 3HH | Montpellier | Frantzia | Tranbien hornidura | Berria | Oinarri-kontratua | Bai | ✔ | 60 | Urbos | | | | | >200 |
| 3HH | SJ AB | Suedia | Eskualdeko trenen hornidura | Berria ez | Oinarri-kontratua | Bai | ✔ | 25 | Civity | | | | | >200 |
| 3HH | Marseilla | Frantzia | Tranbien hornidura | Berria | Oinarri-kontratua | Bai | ✔ | 15 | Urbos | | | | | 57 |
| 3HH | Sevilla | Espainia | Tranbien hornidura | Berria ez | Oinarri-kontratua | Bai | ✔ | 2 | Urbos | ✔ | Zerbitzuak | Tranbien mantentze-lana | 4 urte | - |
| 3HH | Hannover | Alemania | LRVen hornidura | Berria | Oinarri-kontratua | Bai | ✔ | 42 | | | | | | >220 |
| 3HH | Canberra | Australia | Tranbien hornidura | Berria ez | Luzapena | Ez | ✔ | 5 | Urbos | ✔ | Zerbitzuak | Tranbien mantentze-lana eta aurreko flota birgaitzeko lanak | | |

# b | Errendimenduko Neurri Alternatiboak (MAR)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk (“Alternative Performance Measures”,“APMs” ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2022ko Lehen Seihilekoko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan**dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean (www.cnmv.es) eta sozietatearen webgunean (www.caf.net) dago irakurgai, 10. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.


CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE
FERROCARRILES, S.A.
Y
SOCIEDADES DEPENDIENTES QUE COMPONEN
EL GRUPO CAF (CONSOLIDADO)

INFORME PRIMER SEMESTRE 2022

JULIO 2022

# Your Way
## TO FUTURE MOBILITY

ONDO PRESTATUTA ETA BEGIAK ERNE... HORIXE DA MUNDU MAILAKO GARRAIOARI BEGIRATZEN DIOGU MODUA.

HORRELA DISEINATZEN, GARATZEN, FABRIKATZEN, INSTALATZEN ETA TXERTATZEN DITUGU ELKARLOTUTAKO MUGIKORTASUN SISTEMA BAT OSATZEN DUTEN PIEZA GUZTIAK.

ZURE MODURA EGITEN DUGU, ZURE BEHAR ETA LEHENTASUNETARA EGOKITZEN GARA, MODU IRAUNKORREAN, SEGURUAN ETA EROSOAN ETORKIZUNEKO HIRI ETA PERTSONENTZAT MUNDU OSOAN.